

ORDENANTZA FISKALA, BETEARAZPEN-AGINDU, BETETZE SUBSIDIARIO ETA PARTIKULARRENDAKO LAGUNTZETARAKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

14. ordenantza

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehen Tituluko IV. Kapituluko 7. Atalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 12. artikuluan emandako baimenaren babesean ezarri da.

Zergapeko egitatea

2. artikulua.- 1) Honako jarduera hauek egin eta zerbitzu hauek ematea da zergapeko egitatea:

a) Obrak, eraispenak, konponketak eta beste hainbat gauzatzeko aginduak, baldin eta, hirigintzako baimena edo geroko kontrola nahitaezkoak izanik, tributudunaz beste subjektu batek egiten ahal baditu.

b) Betetze subsidiarioak, aurreko idatzi-zatiko kasuetan betearazpen-agindu bat bete ez izanak eraginda.

c) Betetze subsidiarioak, Udalaren ordenantzek zein erabakiek ezarritako betebeharrak bete ez izanaren ondorio diren kasuetan, baldin eta, aurrez, xede horretarako agindu edo ohartarazpen bati muzin egin bazaio.

d) Udaltzaingoaren zerbitzu bereziak, partikularrek eraginda.

2) Interesdunek beraiek eragindako zerbitzuek, edo bereziki haien mesederako direnek, eta ondasunak berreskuratzeko premiagatik edo ordena publikoari, segurantzari, osasungarritasunari edo higieneari lotutako arrazoia direla medio derrigorrean eman beharrekoek ordainarazpena sortzea ekarriko dute, nahiz eta interesdunek zerbitzua eskatu ez.

3. artikulua.- Udalak zilegi izanen du, edozein kasutan ere, enpresa pribatu batekin kontratua egitea Ordenantza honek aipatzen dituen zerbitzuak egiteko. Premiazko kasuetan, eta kontratazio-arautegiak agintzen duenaren arabera, udal-zerbitzuek zilegi izanen dute zuzenean kontratatzea enpresen, teknikari fakultatiboen eta beste bitarteko batzuen zerbitzuak, gero Alkatetzari edo Udaltzari horren berri emanda.

Tasaren sortzapena

4. artikulua.- Tasa sortuko da, kasuan-kasuan, betearazpena agintzen denean, betetze subsidiarioen espedienteari hasiera ematea ebazten denean edo, aldez aurretiko ebazpenik ezean, betetzearen funtsa den laguntza edo zerbitzua ematen denean.

Subjektu pasiboa

5. artikulua.- Honako hauek dira tasa hauen subjektu pasiboak: pertsona fisikoak eta juridikoak eta, baita ere, nortasun juridikorik gabeak izan eta batasun ekonomikoa edo ondare banandua osatzen duten entitateak, haien kontra betearazpen-agindu bat eman bada edo haiek halakorik eragin badute, edo, bestela, gauzatutako betetzeak edo egindako zerbitzuak ukitu baditu edo horren onuradunak gertatu badira.

Zerga-oinarria

6. artikulua.- Ordainarazpen honen zerga-oinarria honako hauek osatzen dute:

a) Betearazpen-agindua: Egiteko den obrari egin behar zaion balorazioaren emaitza izanen da.

b) Betetze subsidiarioak eta partikularrendako laguntzak: betetzearen edo egindako zerbitzuaren kostuak osotara zenbat jo eta hainbeste.

Kudeaketa-arauak

7. artikulua.- 1) Betearazpen-aginduak sortutako tasa likidazio-araubidean exijituko da, baldin eta hori galdatutakoarekin bat gauzatzen bada. Behin obrak amaituta, obra-bukaerako ziurtagiria eta egindako obren egiazko kostuaren gaineko aitorpena aurkeztu behar dira, tributu-administrazioak behin betiko likidazioa egin dezan, betiere hirigintza-lizentzien tasetarako zer arautu eta horrekin bat.

2) Obra-bukaeraren eta obra-bukaerako kostuaren gaineko aitorpena aurkezteko betebeharra ez betetzea tributuei dagokien arau-hauste zehagarria izanen da, Kudeaketarako, Diru-bilketarako eta Ikuskapenerako Ordenantza Fiskalaren IV. Kapituluan xedatutakoarekin bat.

3) Lizentzia behar duten egintzen betetze subsidiarioen kasuan, tasa behin-behinek ahalko da likidatu, eta ordeko betetzearen aurretik gauzatu, behin betiko likidazioaren zain geldituta.

Arau-hausteak eta zehapenak

8. artikulua.- Tasa hau aplikatu eta hortik ateratzen den likidazioaren edo autolikidazioaren zenbatekoa gorabehera, subjektu pasiboa izango da zehapenen erantzulea, baldin eta, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakoa betetz, espediente zehatzailerik irekitzen bada eta horrek zehapenik eragiten badu.

TARIFA-ERANSKINA

I. EPIGRAFEA – BETEARAZPEN-AGINDUAK.
- Tasa kalkulatzeko, zerga-oinarriari Lizentziak eman eta hirigintzaren arloko kontrol-jarduera administratiboak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskalak kasuan-kasuan ezarritako karga-tasa aplikatuko zaio.

II. EPIGRAFEA – BETETZE SUBSIDIARIOAK.
- Tasa kalkulatzeko, zerga-oinarriari karga-tasa hau jarriko zaio: % 132.

III. EPIGRAFEA – UDALTZAINGOAREN ZERBITZU BEREZIAK, PARTIKULARREK ERAGINDA-	Ordua edo zatikia
– Esku hartu behar duen udaltzain bakoitzeko	31,75 euro
– Erabili beharreko patruila-auto bakoitzeko	4,05 euro
– Erabili beharreko moto bakoitzeko	3,55 euro